



Merkataritza sustatzeko ekimenak

Ikasturtearen hasierarekin bat eginez, eskualdeko Udalek eta Andoaingo merkatariek ekimen sorta aurkeztu dute. / 16

Sanmielak ate joka

Irailaren 26an hasiko badira ere, asteburuan ez da aspertzeko tarterik izango / Gehigarria

Mikel Iturria
urnietarrari omenaldi
ekitaldi bana egingo
diote Andoainen
eta Urnietan / 14

'Salda badago'
jaialdia Andoainen,
asanblada
feministaren
eskutik / 15

ZAHARRAK BERRITUZ

15. edizioa
Andoain

BIGARREN ESKUKO OBJEKTUEN AZOKA

Bizikletak, patinak, patineteak, arropa, jostailuak, liburuak, diskoak...

ANIMATUI

ZUMEA PLAZA
IRAILAK 28, LARUNBATA
10:00 - 14:00



Rodriguez andoaindarrak, Sola, Palomo, Martin, Garcia eta Esnaola maratoiko podiuma, sari banaketa ekitaldian. AIURRI

Bisitaria aho bete hortz uzten duen lasterketa

Kirol mailako hitzordua izanik ere, helmugara iritsitakoen lehen adierazpenak paisaiari eta inguruneari loturikoak dira. Azalpen beretsua da, ia kasu guztietan. Korrikalariak txundituta geratzen dira ibilbideak duen edertasunarekin

Mikel Arberas ANDOAIN

Plazaola natur bideko maratoiaren laugarren edizioa izan da aurtengoa, korrikalari askorentzako urteko hitzordu bereziena da. Bereziki, parte hartu duten andoaindarrentzat. Igandeko eguraldia ezin hobea izan zen, eta goiz osoan zehar giro bikaina nabaritu zen. Ikusle asko gerturatu zen helmugara animatzera, parte hartzaileen lagunak eta senideak gehienbat.

Guztira, 502 korrikalariak hartu zuten parte, Andoain helburu zutelak: batzuk Leitzatik irten

ziren 26 kilometroko lasterketa egiteko; beste batzuk, berriz, exigentzia handiagoa eskatzen duen Lekunberri eta Andoain arteko maratoian parte hartu zuten.

Andoni Urbistondo probako aurkezleak hainbat korrikalari elkarrizketatu zituen, helmugara iritsi berritan. Eta guztiek antzeko ondorioak atera zituzten: ibilbidea oso polita eta berezia dela, ibilbidearen gehiengoa maldan behera lasterka egin behar izatea edota probaren antolakuntza ezin hobea.

Sailkapenari dagokionez, Leitzeta-Andoain ibilbidea burutu zutenak iritsi ziren lehenik. Roberto Trejo izan zen 26 kilometroko lasterketan lehenengoa, 1:27:30 denborarekin; bigarrena, Carlos MCleod 1:27:56; hirugarrena, Alejandro Reina 1:30:18.

IBILBIDEAREN EDERTASUNA ETA ANTOLAKUNTZA ONA NABARMENDU ZUTEN PARTE HARTZAILEEK

Emakumezkoetan, berriz, Anabel Eleno lasartearrak irabazi zuen 26 kilometroko lasterketa 1:48:31 denbora eginda; bigarrena, Mainer Lasa 1:51:34; hirugarrena, Lide Azkue 1:53:07.

Maratoiko emaitzei dagokionez, gizonezkoetan nabarmen gailendu zen Mikel Rodriguez andoaindarrak zeinak bere marka onena hobetu zuen. 2:26:32 denbora behar izan zuen; bigarren postuan, Ion Sola 2:34:10; hirugarren postuan, David Palomo 2:35:10. Emakumezkoetan korrikalariak irabazi zuen 3:08:49 denborarekin; zilarrezko postuan, Eva Garcia 3:14:53; eta, brontzezko postua Eva Esnaolak hernaniarrak lortu zuen 3:16:07ko markarekin.



Rodriguez, irabazle nagusia. AIURRI

Podiuma

42 kilometrokoa

Gizonezkoak:

1. Mikel Rodriguez 2:26:32
2. Ion Sola 2:34:10
3. David Palomo 2:35:10

Emakumezkoak:

1. Aitziber Martin 3:08:49
2. Eva Garcia 3:14:53
3. Eva Esnaola 3:16:07

26 kilometrokoa:

Gizonezkoak:


1. Roberto Trejo 1:27:30
2. Carlos MCleod 1:27:56
3. Alejandro Reina 1:30:18

Emakumezkoak:

1. Anabel Eleno 1:48:31
2. Mainer Lasa 1:51:34
3. Lide Azkue 1:53:07



Martin, 42 Km-ko irabazlea. AIURRI



Eleno, 26 Km-ko irabazlea. AIURRI




Exeberriak maratoni onak egin zituen. AIURRI



Jon Iturralde lasterkaria Andoni Urbistondo probako esatariarekin batera. AIURRI



Skate park berrira erabiltzaile ugari hurbiltzen dira. AIURRI



Sanroman eta Paya, elkarrekin. AIURRI



Elena Santervas urnietarrak laguntzaile bikainak izan zituen, azken metroetan. AIURRI



Barrasa, 26koa amaitu berri. AIURRI



Arbaolaza eta Arruti andoaindarrak 26koa amaitu eta berehala. AIURRI

Allurralde ondoko skate park berria osatzeko eskaera

EH Bildu alderdiak parke berriari lotutako zerbitzu osagarriak jartzeko proposamena aurkeztu du

Erredakzioa ANDOAIN

EH Bilduk, ohar bidez, skate parkea osatzeko proposamen sorta aurkeztu dutela iragarri du. Apustua egin zuten alkatetzan zirenean. Orain, parkea zabaldua, erabiltzaile asko dabilta astelehenetik igandera. Pozarren daude: "Pozik gaude lehen hiletetako erabilpenarekin, arrakastatsua izan baita. Argi geratu da beharrezkoa zen azpiegitura bat dela".

Proposamen sorta

EH Bilduk onura asko ikusten dizkio kirol gune berriari: "Potentzialtasuna handia da. Herriko gazteei begira kirol alternatiba berri bat eskaintzen dugu, gazte eta nerabeen aisialdian aukera berriak eskainiz. Eta hori gutxi balitz, txapelketak edo bestelako ekitaldiak egiteko aukerak irekiz. Horretarako beharrezkoa da anbizioz jokatzea

eta zerbitzuak hobetzea. Hori da gure proposamena: azpiegitura honen inguruko zerbitzuak hobetzea". Zehazki, bost neurri proposatu dituzte:

1. Argiteria: "Instalakuntza egin dago, farolak jartzea falta da soilik".
2. Iturria.
3. WC publikoa: "Jende asko egoten da, eta egonaldiak luzeak dira. Bertatik paseatzen dabilenarentzat ere beharrezkoa da".
4. Mahaiak eta eserlekuak.
5. Arautegiaren panela.

EH Bildurentzat proposamen horiek guztiak egingarriak dira: "Dirua egon badago eta borondatearik ba ote dagoen jakin nahi dugu".

Allurralde kiroldegian bigarren pista estalia egiteko proposamena ere erregistratu dutela gogorarazi dute.

Musika emanaldia Unanibian, igandean eguerdiko 12:30ean

Berrondok eta Oiartzabalek ereserkia berria aurkeztuko dute, oraingoan Leitzarar haranari eskainitakoa

Xabier Lasa ANDOAIN

Ez ohiko tokian, kontzertu berezia eskaintzeko asmoa du Gora Kaletxiki bandak. Leizaran haranean izango da, Otietatik gertu dagoen Unanibia zubian. Andoaingo azkeneko ereserki

guztietan bezalaxe, musika Joxe Mari Oiartzabalek konposatu du, eta Joxerramon Berrondok hitzak. 32 musikari arituko dira zuzenean, herriarekin zerikusia duten pieza ezberdinak eskainiz: *Andoain* (Luis Fraca), *Leitzarar*,

Artetxepea, *Antzizar* (J.M. Oiartzabal), *Goiburu* (Pepe Andoain) eta estrainekoz eskainiko duten *Unanibia*. Autobus zerbitzua jarriko da, Otietara joan etorria egiteko. Aurkezpen ekitaldian izan ziren Gora Kaletxiki Bandako Joxe Mari Oiartzabal, Joxerramon Berrondo, Jexus Ibañez, Julen Barrio eta Joxean Well musikariak eta Estebe Lopez de Muniain Goiburuko SEGAKO kidea. Haiekin batera Maider Lainez alkatea eta Ascen Parron zinegotzia.



Emanaldiaren aurkezpen ekitaldia egin zuten astelehen arratsaldean. AIURRI

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

OLGA HERNANDEZ MONTERO ANDOAIN

Eskerrik asko

Eskerrik asko Ganemos-Andoain-Irabaziko botuemaile guztiei, bereziki pertsonalki ni ezagutu ez eta nigan jarritako konfiantzagatik. Eskerrik asko Jorge Mourinhori (Irabazi-Andoain) eta Alvaro Gonzalezi, elkarrekin gure hautes programaren gehiengoa aurrera eraman eta udal etxebizitzak berregokitu eta alokairu sozialerako bideratzea edota parte hartze prozesu bidez haur parkeak estaltzea lortu delako. Askoren artean aipatutako adibideak dira, biztanlegoaren gehiengoaren aldekoak izan direnak. Eskerrik asko bihotzez Andoaingo Podemos-Andoain-Ahal dugu zirkuluko partaide bakoitzari, euren laguntzarik eta babesik gabe askoz zailagoa litzatekeelako. Ganemosek Udalarari 27.115,88 euro itzuli dizkio. Faktura guztiak

Udalaren interbentzio sailean ikusgai daude, eta gure ekimenez, baita 2016tik hona gainerako alderdiena ere. Geroan ere alderdi politiko guztien fakturen kontrol zehatza egotea espero dugu. Eta, bukatzeko, nire esker zintzoena Argituzen txostenean lekukotza zuzena eman dute herritarrei. Baita Argentinako kereilan parte hartu dutenei ere. Eskerrik asko, bihotzez, zuen eskuzabaltasunagatik. Lanean jarraituko dugu memoria, egia, justizia eta erreparazioa biktima guztiengana irits daitezen.

GEROAN ERE ALDERDI POLITIKO GUZTIEN FAKTUREN KONTROL ZEHATZA EGOTEA ESPERO DUGU



POSTONTZIA

ELKARBIZI (BETERRI-BURUNTZA)

Normalizazio prozesua eta lidergo politikoa

2019ko programaren baitan, elkarbizi taldeak 'normalizazio prozesua eta lidergo politikoa' hitzaldia antolatu du. 1985eko urtarriletik 1999ko urtarrila bitartean euskal gobernuaren gidari nagusia izan zen Jose Antonio Ardanza lehendakariak egingo du gaiaren azalpena.

Bakearen aldeko herri-mugimenduentzat erabakigarria izan zen aroko protagonista garrantzikoenetakoa izan zen Ardanza lehendakaria. Suetenak eta negoziaketak, indarkeriaren gogortze-garaiak (terroristak eta antiterroristak), edo

sufrimenduaren sozializazioak utzi zituen arrastoak oso hurbiletik ezagutu izan ditu.

Beharbada, bakearen aldeko gizarte mugimenduaren susperketari lidergo politikoak egin zion ekarpena zein izan zen inork baino hobeto argitu dezake Ardanza lehendakariak. Berak garbiro bereizi zituen nazionalismoa eta terrorismoa; elkarrekin zer-ikusirik ez zutela adieraziz, ez bitarteko ezta helburuetan ere. Bide honetatik, bere ustea zen "gatazkaren konponbidea ez zela kokatu behar nazionalismoaren esparruan, demokraziarenean baizik".

Indarkeriaren aurkako gizarte-ekimen eta mobilizazioetan lidergo politikoak eduki duen eraginaren neurria ezagutzea litzateke ekitaldi honekin lortu nahi duguna.

Ikastaroa datorren irailaren 25ean izango da arratsaldeko 19:00tatik aurrera, Urnietako Lekaio Kultur Etxean. Ikastaroaren izaera trinkoagatik, eta parte hartzeko plazak mugatuak direnez, izena emateko epea astelehenean, irailaren 23an, bukatuko da. Izen ematea, ohi bezala, e-postaz egin daiteke: ganboiturri@gmail.com.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus

andoainDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeze ebeke harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 alea.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA: **ERROITZ** KULTUR MUNDUA

ALJATUAK: **nesteez**

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

EUSKO INJURIAKETA GOBERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizuntza Berlinguasmerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA: **Bitkarn**

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

SANMIELAK 2019 URNIETA

JAIHA HASTEAREN DA





Berdeak izenez ezaguna den koadrilako bi kidek eta Wu Tao elkarteko beste bik Urnietako Udal ordezkariekin eta teknikariekin parte hartu zuten. AIURRI

Tradizioa eta berrikuntza egitarauan uztartuta

Dantza tradizionala eta Parkour erakustaldia, ohiko hitzordu gastronomikoak eta herritar ugari elkartu nahi dituen paella jatea... Aurtengoan ondo errotutako hitzorduak proposamen berriekin osatzera doaz. Irailaren 26an, ostegunarekin, hasiko dira jaiak

Jon Ander Ubeda URNIETA

Joxan Artzeren poesia gurea ekarriz, ur berria ekarriz, jaietako egitarauak iturri zaharretik edaten du. Urtez urte errepikatzen diren ekitaldiak egitarauan agertzen baitira, hainbat agerpen berriekin. Eta horien artean larunbat eguerdian (irailak 28) antolatu duten paella jatea narmendu behar da. Orain arte

egiten diren bi bazkarien osagarri izango dela argi utzi nahi izan dute. Emakumezkoen eta gazteen urteroko bazkarietaz gain, aurtengoan herritar orori zabalduko paella jatea antolatu dute San Juan plazan. Izen ematea zabalik dago, eta gainerako herrietan dagoen koadrilaren eguneko bazkari erraldoi horietakoa izatea nahiko lukete.

Aurrera Gure Ametsa taldeak dantza tradizionalari loturiko "Jalgi plazara" jaialdia eskainiko duen bitartean, Egapekoek euskal tradizioa eta garaikidea bikain uztartuko dituzte "360°" eta "Formak" ikuskizunetan. Eta ez da dantza, baina gorputzaren mugimenduetan lotura duten Parkour edota Tricks Kicks jarduera urbanoak Urnietan

bertan ikusteko aukera izango da. Tradizioa eta berritasuna, parez pare, egitarau berean.

Gerta daiteke tradizioa zena galtzea, eta hura berreskuratzean berritzaile bilakatzea. Horixe gertatu zen 2009an, dantza-soka ahanzturatik berreskuratu zutenean. Geroztik ez dute hutsik egiten, eta gaur gaurkoz dantza saio estimatuenetakoa da.

Urteak aurrera doaz, hamarkadaz hamarkada, eta badira mendetik mendera irauten dutenak. Erakundeak, eraikinak edo negozioak. Horietakoa da Zaldundegi jatetxea. Euskal sukaldaritza tradizionalaren erakusgarri da, familiako negozioa. Urteak, hamarkadak, mendeak igaro dira. Eta hortxe dirau, Idiazabal kalean martxan. Urnietako Udalak esker ona adieraziko die San Miguel eguneko omenaldi ekitaldian.

Kontutan hartu beharrekoak

Trafikoa

Urnietan barrena ibilgailuan ibiltzean eragozpenak sortuko dira hainbat egunetan. Trafiko mozketak izango dira Idiazabal kalean, irailaren 28an eta 29an. Eta irailaren 26an San Juan plazako inguruak itxita izango dira, ibilgailuentzat.

Jaien atariko ekitaldien sarrerak

"Formak" dantza ikuskizunerako sarrerak Saroben eskuragarri daude. Larunbat honetan da, 19:00tan.

Larunbatean ere Eli Pagolak eta Aitor Sarriegik abestuko duten bertso afaria. Txartelak salgai daude Kantoin, Zaldundegin eta Oianumen.

Astelehenean (irailak 23) Sarobera datoz Pou anaiak, ikus-entzunezkoa eta hitzaldia eskaintzera. 19:00tan izango da. Sarrerak dagoeneko eskuragarri daude.

Egunean bertan, lehiatilan, azken sarrerak eskura.

Asteazkenean (irailak 25) "Errimak oinetan" ikuskizunaz gozatu ahal izango da, Saroben. 19:00tan hasiko da, eta sarreraren prezioa 5 eurokoa da. Dagoeneko salgai daude.

Gaztelo
GOZOTEGI ARTISAUA
BONBONERIA

Gora Sanmielak!

Errekalde kalea, 14 - 20.130 URNIETA - 943 008 406
Zarautz ibilbidea, 76 - 20.018 DONOSTIA - 943 226 584

IZAN KONFIANTZA GUGAN!

ACADEMIA IDIOMAS G.F ANDOAIN
Tel.: 943 591 508

Cambridge English
Exam Preparation Centre

Ondo pasa festetan!
www.academiagfandoain.com

- Gure ardatza Cambridge azterketak dira.
- Maila guztiak: STARTERS, MOVERS, FLYERS, KET, PET, FIRST, CAE...
- 2019ko uztaileko deialdian, FCE 17tik 15 ikaslek gainditua. CAE eta PROFICIENCY azterketatan %100 gainditze tasa.
- STARTERS, MOVERS, FLYERS, KET, PET azterketatan %100 gainditze tasa.
- Taldeak goiz eta arratsaldean.
- Talde txikiak.
- Speaking klaseak.
- 4 edo 5 urtetik aurrera.

Galardi 10, 1A etorri edo deitu

Txupinazoa bi kirolari handiren eskutik

Jokin Lizeaga korrikalariaren bidetik, aurtengoan ere jai batzordeak kirolariei arreta berezia eskaini die. Julen Gabirondo segalaria eta Nahikari Garcia futbolaria izango dira jaien hasierako pregoia bota eta suziria botako dutenak

Erredakzioa URNIETA

Jokin Lizeaga, Julen Gabirondo, Nahikari Garcia, Mikel Iturria... Urnietak urrezko aroa bizi du, goi mailako kirolariei dagokionez. Kirolari saiatuak dira guztiak, bakoitza berean goi mailan dabilena. Eta behin baino gehiagotan poz handia emandakoak, herriari eta euskal zalegoari.

Gabirondo segalaria onenen artean dabil. Iaz abuztuan lortu zuen Euskal Herriko txapelketa ez du sekula ahaztuko. Astesuko sailetan gailendu zen, eta emozioari eutsi ezinik izan zen. Hil berria baitzen Mikel Garaialde auzotarra eta laguna. Meretzitako aitortza jasoko du, aurtengo jaietan.

Nahikari Garcia futbolaria oso gaztea da, baina dagoeneko elitean eskarmentu handia du. Errealeko ikurretakoa da, eta Espainiako selekzioan lekua hartu du. Aurreko denboraldia gogoangarria izan da, Erreginaren Kopa lortu eta gero Frantziaren antolatutako Munduko txapelketan jokatu baitu.



2018ko abuztuan Euskadiko txapela lortu zuen, garaipen sentituan. AIURRI

Udal omenaldia Zaldundegi jatetxeko hiru ahizpei

Zaldundegi jatetxea urnietar askoren eguneroko paisaian kokaturik dago. Eguneroko bertatik pasatzen diren askotxok ez dute ezagutuko jatetxeak Urnietako historian izan duen garrantzia.

Jatetxearen jatorriaz, pasarte esanguratsua jaso zuen Aiurrik 2009an: "Zaldundegi herriaren eta, batez ere, Idiazabal kalearen eraldaketaren lekuko izan da. Zaldundegi, gaur egun taberna eta jatetxe ezaguna da. Baina aurretik, Bide Errealetik zetozenentzat ostatua, baserria, gasolinera, estankoa, janari denda, ganaduarentzat pentsum saltzen zen etxea eta abar izandakoa da". Hamarkada batzuk atzera eginez, Joxe



Hiru ahizpak, artxiboko irudian. AIURRI

Manuel Garagorrik eta Iñaxi Aranburuk Zaldundegiko ardura hartu zuten. Eta haien lekukoa hiru alabek hartu zuten: 1949ko apirilaren 11n jaiotako Mari Karmen, 1950eko ekainaren 2an

jaiotako Pepi, eta 1951ko ekainaren 12an jaiotako Axun. Urnietako Udalak "hiru ahizpek burutu duten lan bikaina"ri aitortza egingo dio, San Miguel egunean.



2019an Erreginaren Kopa altza eta Munduko txapelketan parte hartu du. AIURRI



SANMIEL JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU!

 **magale**
IKASTETXEA

 salestarrak
URNIETA



SANMIELAK URNIETAN 2019

IRAILAK 20

OSTIRALA

22:00 "360°" Egape eta Anabasen ikuskizuna plazan. Eguraldi txarrarekin, Frontoian.

IRAILAK 21

LARUNBATA

11:30-12:30 SuperH marrazki lehiaketa SuperH Parkean, Euriarekin Lekaion.

16:30-20:30 SuperH festa. Mendi lasterketa txikia, jolasak, pailazoak, txokolatada...

19:00 "Formak" Egaperen ikuskizuna Saroben.

21:00 Bertso afaria Oianumen: Eli Pagola eta Aitor Sarriegi. Txartelak Kantoi, Zaldundegi eta Oianumen.

IRAILAK 22

IGANDEA

09:00 Plater tiraketa Arkalen.

09:00-10:00 Pintura lehiaketa, izen-ematea Lekaion.

10:00 Extremadurako produktuen dastaketa Kontzejupean.

13:00 Virgen de Guadalupe taldearen emanaldia plazan.

19:00 Pintura lehiaketaren sari banaketa Lekaion.

IRAILAK 23

ASTELEHENA

19:00 Pou anaiak Saroben: "Mallorca, Andeak eta Himalaya: Mendi bertikaletan murgilduta". Bi urnietarren ikusentzunezkoa "Everest-eko trekking-a".

IRAILAK 25

ASTEAZKENA

19:00 "Errimak Oinetan" bertso ikuskizuna Saroben.

IRAILAK 26

OSTEGUNA

17:00 Bingoa Denda Berrin.

18:00 Haur jaioberriei zapia jarriko diete, kontzejupean.

18:30 Erraldoi eta buruhandien kalejira, Plazido Muxika Plazatik hasita. Bosko Anitz Txarangarekin batera.

19:30 Kanpai jotzea eta Mielaren jaitsiera, plazan.

19:30 Txupinazoa.

20:00 Txosnen irekiera.

20:30 Tortilla lehiaketa txosnagunean. Tiketak 2 eurotan, Guria tabernan. Gau tematikoa Txosnetan: Ibiza. D.J PZ Feat. Albabarruna txosnatan.

IRAILAK 27

OSTIRALA

17:00-19:00 Urnieta Selfie! proba-jolasa. Zubitxo Plazatik hasita, 11-16 urtekoentzat.

16:30 Petanka eta mahai jolasak Denda Berrin.

17:00 Eskubaloi jolasak haurrentzat, plazan.

19:00 Kantazaun kantujira, plazan hasita.

21:00-23:00 Oilasko-afaria txosnagunean. Tiketak Gurian salgai.

23:00-00:30 Umirezko antzerki ikuskizuna "Solo Fabiololo glam slam" plazan. Euriarekin Saroben.

23:30 Mc Onak, Zopilotes Txirriaus eta Iruñerria Jamaika Clash musika taldeak zuzenean txosnatan.

IRAILAK 28

LARUNBATA

07:00 Jokoak plazan.

10:00 Kalejira Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria, Astigarraga eta Hernaniko txistulariekin.

11:00-14:00 Pil-pil erarako bakailao lehiaketa eta Maxter-Txef txiki lehiaketa ermita aurrean. 13:00etan sari banaketa eta dastaketa.

12:00 Parrillada urnietar guztientzat, Denda Berrin.

12:00 Kuadrilen kalejiraren irteera Pasai txarangarekin, Plazido Muxika plazatik.

12:00 Poxta Zaharren poteoa, Guriatik aterata.

14:00 Paella jatea plazan. Tiketak salgai Gurian eta Kantoin.

14:30 Txosnagunean bazkari herrikoa. Tiketak salgai Kantoin eta Zaldundegin.

14:30 Emakume kuadrillaren bazkaria Gurian.

16:00 Karabina tiraketa Bolatokian, 8-14 urtekoentzat.

16:30-18:00 Holi Fest! Plazido Muxika plazan 11-16 urteko gazteentzat.

17:00-21:00 Kuadrilen kalejiraren irteera Pasai txarangarekin, plazatik.

17:00-20:30 Zutik elektrotxaranga, irteera txosnagunetik.

18:00 Parkour, Trick Kicks eta Barbacoa Fest! Ikuskizuna. Plazan. Euriarekin, Egape ikastolako jolastoki estalian.

18:30 Martin Mujika Pilota jaialdia. Erremontean: Imanol Ansa Il-Josu Arruarte / Ander Goikoetxea-Ibon Zaldúa. Esku-pilotan, afizionatuak: Santxo-Odrizola / Goñi Ill-Lizeaga.

19:00 Urdanbor, Plazido Muxika plazatik abiatuta.

19:15 Urdanbor danborradaren saioa elizan.

22:00 Bertsoak plazan: Beñat Gaztelumendi, Miren Artetxe, Ane Labaka, Unai Mendizabal. Gai-jartzaile: Amaia Agirre.

24:00 Urdanbor.

24:00 J-tiro, Ziribulio, Bad Sound System txosnagunean.

24:00-02:00 Musika plazan, London Orkestrarekin.

02:30-04:00 DJ musika.

IRAILAK 29

IGANDEA

07:00 Txaranga Idiazabal kalean zehar.

09:30 Diana Txanbolinekin.

10:30-13:30 Perurekin GKEaren postua plazan.

11:00 Hurren danborraden hasiera.

MUAZPI
Harategia *Ondo pasa jaletan!*

- Bertako haragia
- Jaki prestatuak
- Delikatessen
- Ardotegia

943 008 304
665 737 871
Errekalde, 14. URNIETA
muazpi@gmail.com

HK10 hotelak Sanmiel
jai zoriontsuak opa dizkizue

Etorri gurera Parrilla menu berezia dastatzera

Erreserbak: 943 33 73 57 edo
info@hotelk10.com

- 11:00** Meza elizan. Korporazioa Udaletxetik elizara.
- 12:00** Egapedanbor eta Magale haur danborraden elkargunea plazan.
- 12:30** Udalaren omenaldia plazan, Zaldundegi jatetxeko emakumeei.
- 13:00** Haur danborraden ibilbidea, plazatik Idiazabal kalera.
- 13:00** Txanbolinen emanaldia eta ikasleen dantza saioa plazan.
- 14:00** Denda Berriren bazkaria.
- 17:30** Jule antzerkia Zubitxo plazan.
- 18:00** Kontzertu akustikoak txosnagunean.
- 18:00** Agirren taldea Plazido Muxika plazan.
- 20:00** Dantza-soka herrikoiairen X. urteurrena plazan.
- 20:30** Mariachi Zacatecas plazan.
- 20:30** Txosnen itxiera.



Xabi Solano Esne Beltzako kantaria bakarka arituko da, urriaren 6an. AIURRI

IRAILAK 30

ASTELEHENA

- 09:30** Diana Txanbolin bandarekin.
- 10:30** Alkate Txikien izendapena Udaletxean: Carla Montero Corbelle eta Nikolas Agudo Felipe.
- 10:30** Egapek Belauntxingoa dantzatzuko du.

- 11:00-14:00** Haur parkea Egapeko jolastokian.
- 16:30-18:30** Haur parkea Egapeko jolastokian.
- 17:00** Erraldoi eta Buruhandien kalejira plazatik hasita.
- 17:00** Kontzejupeko esku-pilota txapelketako finala.
- 18:00** Egapexou Etxeberri plazan: "Zimitorioko Sorginak".

- 19:00** Xaibor! Diskofesta plazan.
- 20:00** Alkate txikien botere uztea udaletxean.
- 20:30** Mielari agurra, zezen suzkoa.

URRIAK 5

LARUNBATA

- 09:00-17:00** I. Petanka lehiaketa.
- 09:00-17:00** SuperH futbol festa Burnibide Parkean.
- 18:00** Agirren taldea Plazido Muxika plazan.
- 23:00** Mind Trap eta Lord Witch zuzenean plazan.

URRIAK 6

IGANDEA

- 09:00-13:00** Auto klasikoan ibilaldia, Xoxoka Motor Club-en eskutik.

- 09:30** Bolo txapelketa.
- 10:00** Diana txanbolin bandarekin.
- 10:00** Jalgi plazara Aurrera Gure Ametsaren eskutik.
- 11:00** Meza elizan. Aurrera Gure Ametsaren Ezpata-dantza.
- 12:00** Ingurutxo.
- 12:00** Munduko ardoak plazan.
- 17:00** Herri kirol erakustaldia.
- 18:00** Agirren taldea Plazido Muxika plazan.
- 18:00** Txekor jatea eta sagardo dastaketa plazan.
- 18:30** Willy Etxeberria memoriale zesta punta jaialdia: Unai Lertxundi-Mikel Manzidor // Ibañez-Andonegi).
- 19:00-20:30** Xabi Solano zuzenean plazan. Euriarekin Saroben.
- 20:30** Azken traka erretzea eta jai amaiera.



2009ko urriaren 4an, igandearrekin, dantza-soka berreskuratu zuen Egape dantza taldeak. Saioa amaituta, partaideek taldeko argazkia atera zuten. Ikusten denez, herritar ugariak parte hartu zuen lehen edizio hartan. AIURRI

Ahantzuratik berreskuratu zuten dantza

Urnietako jaietan Egape dantza taldearen parte hartzea garrantzia handikoa da. Eta euren ekarpena ez da berria. Urteak dira ikuskizun eta saio ikusgarriak antolatzen dabiltzala. Berrikuntza ez da euren jomuga bakarra

Erredakzioa URNIETA

Tradizioari begira, hamar urte dira Egape dantza taldeak dantza-soka berreskuratu zuenetik. Urteak ziren dantzatzen ez zela. Ahantzuratik berreskuratu eta 2009ko jaietan jendaurrean eskaini zuten berriro. Geroztik, dantza sokak ez du etenik izan. Berrogeita hamar lagun inguru ibili ziren berreskuratze lanetan. Hauxe 2009an parte hartu zutenen zerrenda: Mikel Agirregomez-

korta, Itziar Agote, Aitziber Aranburu, Nagore Arostegi, Enkarni Cuesta, Ibon Egaña, Juxto Egaña, Roxa Elozegi, Juankar Erasun, Izaskun Erauskin, Xare Esnal, Estitxu Garagorri, Goretti Garagorri, Kontxi Garcia, Imanol Gartzia, Ramon Goikoetxea, Shandra Gonzalez, Idoia Gorroño, Iñaki Ibañez, Mari Jose Igerategi, Mirari Igerategi, Mikel Iraola, Enara Izagirre, Olatz Izagirre, Antton Jauregi, Jaione Jauregi,

Periko Juanikorena, Jaione Larrañaga, Julen Larrarte, Jon Lizarribar, Peio Martin, Arantza Miguez, Elena Mujika, Xabier Odriozola, Iñaki Otaegi, Leire Peñagarikano, Iratxe Ramirez, Natalia Rodriguez, Lucia Saiz, Isidro Salinas, Amaia Santin, Ederne Sarasola, Maripe Sarasola, Maitane Txapartegi, Maribel Vaquero, Mikel Yurramendi, Luix Mari Zaldua, Beñat Zinkunegi eta Fermin Zinkunegi.



Dantzas gozatzeko aukera izango da Urnietan, asteburu honetan. AIURRI

Egaperen emanaldi bikoitza

360° + Anabas

Soinuen begiradak suite

Soinuen begiradak urte amaierara begira Anabas taldearekin batera prestatzen ari diren ikuskizuna da. Aurrerapen modukoa eskainiko dute, asteburu honetan. 360 gradu izeneko ikuskizuna ekainean eskaini zuten Urnietan, ikusleen txalo zaparrada jasoz. Asteburu honetan emanaldi ikusgarriaz gozatzeko aukera dago.

Irailak 20, ostirala. 22:00, San Juan Plaza.

Formak

"Indartsu datozen 46 dantzari gazte igoko dira Sarobeko taula gainera hamalau koreografiz osatutako ordubeteko dantza ikuskizuna eskaintzeko. Ohikoa bihurtu den eta ikuskizun formatua duen emanaldia prestatu dugu argiak, jantziak, eta nola ez dantza koreografia berritzaileak eskaintzeko".

Irailak 21, larunbata 21. 19:00, Sarobe.



Haurrei begira plan polita antolatu dute larunbaterako. AIURRI

Mendi lasterketa txikia, larunbatean Super Hren eskutik

Larunbat goizean marrazki lehiaketa antolatuko dute, eta arratsaldean ekitaldiz beteriko festa

Erredakzioa URNIETA

Super H taldeak nekaezin darrai haur minbiziaren inguruko sentsibilizazio lanetan. Ekimen ezberdinak antolatzen ditu, eta horietan lortutako dirua haur minbiziaren ikerkuntzara bideratzen da. Donostiako Ospitala-

rekin harreman zuzena dute, Super H taldeko kideek. Larunbat goizean haur marrazki lehiaketa egingo dute. Eta arratsaldean, San Juan plazan, mendi lasterketa txikia, pailazoen emanaldia, jolasak, txokolate jatea... Plan polita larunbaterako.

Pieza berri gehiago

Jose Ignazio Ansorenak 2003an jaietarako bost pieza berri konposatu zituen, eta horietatik bi iaizko danborradarako berreskuratut zituzten. Aurtengoan, Urданbor danborradak pieza berri bat gehiago berreskuratuko duela iragarri du. Piskanaka piskanaka erreperitorioa osatzen doaz, beraz. Maisu handiaren konposizioekin, gainera.



AIURRI

Bigarren urtez jarraian

Eskuz egindako artelan zaindua eta ederra egin du Kristina Arozena herrikideak, eta mimoz egindako lanagatik saria jaso du. Pozarren egon daiteke, bigarren urtez jarraian jaiak iragartzeko kartel lehiaketa irabazi duelako. Ez da horrelako kasu askorik egongo. Herrigunea, jaiaren elementuak eta udazkena bikain uzartu ditu.



Kristina Arozena, egilea. UDALA

Paella eta bakailaoa

Koadrilen eguneko bazkaria izatera dator irailaren 28ko paella jatea. Bertan bazkaltzeko, hori bai, txartela eskuratu beharra dago Kantoin eta Gurian. Azken eguna, irailaren 24a. Pil-pil erako paella lehiaketaren kasuan ere izena emateko epea irailaren 24an amaituko da. Kasu honetan ere Gurian eta Kantoin eman behar da izena. 11:00tan hasiko da lehiaketa, hilaren 28an.



Iazko pintura lehiaketako sari banaketa ekitaldia. UDALA

Sari potoloak dituen pintura lehiaketa, igande osoan zehar

Izen-ematea goizeko 09:00tan zabalduko dute Lekaion. Lanak arratsaldean bertan aurkeztu beharko dira

Erredakzioa URNIETA

Margoketa gogoko dutenek hitzordu polita dute igande honetan Urnietan. Herrikoez gain, lehiaketa gainerako herrietako margolariei zabalik dago. Eta sariak potoloak dira.

Igandea bertan pasatzeko moduko plana izango da. Igandean bertan, goizeko 09:00tatik 10:00etara, Lekaion izena eman behako da. Bide batez, parte hartzaileei artelana osatzeko oihala zigilatu egingo zaie.

Egun osoa izango dute margoketa lanetarako. Antolatzaileek adierazi duenez, lana amaituta aurkeztu beharko da arratsal-

GOIZEAN PINTURA EGITEKO OIHALA ZIGILATU ETA LANA ARRATSALDERAKO BUKATU BEHARKO DA

deko 16:30-17:00 bitartean Lekaion. Une horretatik aurrera epaimhaia saridunak erabakitzen hasiko da.

Sari bana Lekaion bertan izango da, 19:00tan hasita.

Sariak hauek izango dira:

14 urteko maila

1. saria: Elkar dendetako 100 euroko erosketa txartela.
2. saria: Elkar dendetako 50 euroko erosketa txartela.

15 urtetik aurrerako maila

1. saria: 750 euro.
2. saria: 450 euro.
1. urnietarra: 300 euro.

IGANDEAN BERTAN ADITZERA EMANGO DITUZTE LEHIAKETAKO IRABAZLEEN IZEN ABIZENAK

TORNULARIAK

Lehen mailako ofizialak behar ditugu CNC tornoan lan egiteko

Interesatuak bere CVa ondorengo helbidera bidali beharko dute:

Talleres Mitxelena, S. Coop,
Eziago poligonoa 21, 20120 Hernani
2019/09/20 baino lehen

info@talleresmitxelena.com

mitxelena
LABORAL COOP. TORNARIAK

CERAMICAS **NOGALES** S.L.
URNIETA

- Sukaldeko altzariak
- Aluminio aroztegia
- Egur aroztegia
- Elektrizitatea
- Igeltua
- Hargintza
- Iturgintza
- Pintura

Ondo pasa Sanmieletan

Errekalde, 10
20130 Urnieta
Tel./Faxa: 943 009 284
Tel.: 943 550 624
ceramicasnogales@ceramicasnogales.com

Iraila ospakizunez betetzeko, jaia Etxeberrin

Urnietako jaien eta Xoxokako jaien aurretik, Etxeberri auzuneko jaiak iraileko egutegian tokia irabazten ari dira. Gogotsu dabilta bertako eragileak, eta auzotarrei eta herritarrei asteburua jai giroan murgiltzeko aukera eskaini zieten



Bizilagunen laguntzari esker aurrera ateratzen da egitarau osoa. AIURRI

Erredakzioa URNIETA

Etxeberri auzoko jaiak eguraldi bikainarekin eta giro hobearrekin igaro dira. Txupinazoarekin batera, haurrek protagonismo berezia hartu zuten ostiral arratsaldean. Jaiak jarraipena izan zuten larunbatean, eta bizilagunek bezperatik ondo pasatzeko gogoari eutsi zioten. Ginkana, zumba eta eskulanak izan ziren eguerdi partean, eta auzo bazkaria ondoren. "Haiek naiz" zirkoari loturiko ikuskizun poeti-

koarekin gozatu ahal izan zuten arratsaldean, auzora bertaratu zirenek. Patata tortillaren lehiaketa eta afaria etorri ziren segidan. Jaietako amaiera emateko, DJ Katxorrok festazaleak dantzan jarri zituen.

Auzo bizitza indartu nahi dute, eta urtez urte lortzen ari direla dirudi. Fran Bravo jaietako sustatzaileetakoa da. Pozarren dago: "Hirugarren urtea da aurtengoa. Eguraldi ederra dugu, eta jende askok parte hartuko

duelakoan gaude. Gogo handiz gaude, gauza berriak probatzen. Apar festa edota zirko ikuskitzuna. Auzoko jendearen festa da, baina urnietar guztiei begira daude".

"GOGO HANDIZ GAUDE, URTEZ URTE GAUZA BERRIAK PROBATZEN"

FRAN BRAVO, JAI BATZORDEA



Larunbat eguerdian zumba egin zuten. Bogan dagoen jarduera da, inguruotan. AIURRI



Apar festa ostiral arratsaldean. Haurrek primeran igaro zuten. AIURRI



Marrakzi lehiaketa, ostiral arratsaldeko ekitaldia. AIURRI



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ORAIN
GIPUZKOA**

“Helburua gozatzea da, eta mailari eustea”

GORKA VICENTE URNIETA KE ESKUBALOIKO LEHEN TALDEKO JOKALARIA

ESKUBALOIA 14 urte daramatza dagoeneko UKE eskubaloia taldean. 32 urte egingo ditu laster, eta 18 urtez geroztik ari da jokatzeko. Ziurrenik azkena izango da

Andoni Urbistondo URNIETA

Ilusioz bizi nahi du 2. Nazional Mailan jokatzeko erronka, sufrituko dutela jakitun bada ere. Larunbatean ekingo diote Liga txapelketari Bizkaian, Urdaneta taldearen aurka.

Nola zen UKE 14 urte atzera?

Nire garaian bi talde zeuden, senior mailako mutilak eta neskek. Eta ezer gutxi gehiago. Orain maila guztietan daude taldeak, infantiletatik hasita. Eskubaloia urrezko aroa ezagutzen ari da Urnietan.

Entrenatzailea ere bazara, egoera pozgarria izango da hori, ezta?

Noski, kluba osasuntsu ikustea beti da pizgarria. Aurten entrenatzaile laguntzaile izango naiz jubenil mailako taldean. Lanean hasita nago, goizez eta arratsaldez, eta gero senior taldekoekin entrenamenduak ditut. Laguntza emateko nago, arduradun izateko baino.

Zure bizitzan eskubaloia ezinbesteko osagaia dela esan daiteke?

Zalantzarik ez. Bikoteak eskubaloian jokatzeko du, entrenatzailea naiz, senior taldeko kide... Nire bizitza ezin da eskubaloirik gabe ulertu. Azken urtea izango da agian.

Bai?

Fisikoki justu samar sentitzen naiz dagoeneko. Lana, entrenatu,



Ilbilde luzea osatzen ari da UKE taldean Vicente urnietarra. AIURRI

bikotean bizitza egiteko denborarik ez, asteburuetan partida egunetan egun osoa ia-ia eskubaloien baitan, zeren eta Bizkaia edo Araban jokatzeko gero, ordu asko joaten dira. Ez dut kluba bazterrean utziko. Nire laguntza behar badute emango diet, baino albo batera geratzen hasi nahiko nuke.

Lesionatuta zaude.

Bai, hatz bat hautsi nuen, eta baloia ukitu ezinik nago. Baina entrenamenduetara joaten naiz, gimnasia... talde dinamikan sartuta nago.

Bigarren nazional maila. Zein sentsazio dituzue taldean?

Sentsazio kontrajarriak. Ilusioa daukagu, baina beldur pixka bat ere bai, zergatik ukatu. Oso talde gaztea daukagu, jokalaririk on askok taldea utzi dute ikasketengatik kanpora joan direlako: Eneko Urruzola, Joseba Errazkin, Pablo Fierro... Talde oso garrantzitsuak ziren. Sergio atezaina ere ez da kantxan izango, beste lan batzuetan ariko da. Eskarmentu handia du, eta esaten duenez, ez du taldea hain gaizki ikusten. Ahal izan den

taldea osatu da, ez nahi genuena. Iaz bi talde genituen, bat Gipuzkoako Lehen Mailan, eta bestea Bigarren Mailan. Denboraldi honetan talde bakarra, 16 jokalaririk gara. Ez da inor igo behereko mailatik, baina jubenil mailakoek aukerak izango dituztela pentsatzen dut.

Bigarren Mailako taldean aritu zinen iaz, eta aurten jauzi galanta emanago duzu: Bi kategoria gorago jokatuko duzu.

Gipuzkoako Bigarren Mailan lehen lerroko posturen batean joka nezakeen. Maila hori, baina, askoz apalagoa da 2. Nazional Mailan izango dugunarekin alderatuta. Mailan berriaren hegaleko postuan bakarrik aritzeko gaitasuna daukat. Fisikoki askoz exigenteagoa da, eta horrek errespetua eman dit. Fedea badut nigan, ez naiz inoiz inor baino okerrago edo hobeagoa sentitu. Laguntzatxoa ematea espero dut.

Zer eskatu dizue entrenatzaileak?

Talde txikia gara tamainaz, ahulenetakoa, eta defentsa irekitzen saiatu eta azkartasuna baliatzen saiatu beharko gara. Jaurtitzailen onak baditugu, baina joko estatikoan kontraerasoetan baino okerrago moldatuko gara, beti. Kontraerasoak egiteko, noski, defentsan trebeak izan behar gara.

Zenbat taldek galtzen dute maila?

Teorian bik, baina Nazional 1 mailatik euskal talde bat jaisten bada, ba hiru. Bi taldek maila galduz gero, lau jaitsiko lirakeke.

Zein da kirol erronka?

Bi talde sailkapenean azpitik uztea. Ez da erraza izango, baina badut esperantza. Ia denak gara jokalaririk berriak 2. Nazional Mailan. Egoitz Karrazedo, Josu Pagola, Unai Lejardi eta Iosu Irigoyen bakarrik aritu izan dira. Maila galtzeko hautagai sendoe-

na garelako esango nuke, baina denboraldia gozatzeko da, pasa den sasoiaren lortu genuen sariatzeko gozatzeko unea. Probatzeko momentua da, eta irauten badugu, ondo, eta lortzen ez bada, lanean segi beharko da.

Zer nolako jarrera eduki behar dute zaleek?

Gure berbera. Etxean animatu behar gaituzte, etxeko puntuak mailari eusteko erabakigarriak izango direlako. Etxetik kanpo zaila izango da puntuak urratzea. 14 talde gara kategorian. Guk afizioari eman behar diogu, haiek guri zerbait emateko.

Zein izan daiteke aurkari zuzena?

Bilboko Escolapios. Igoera fasean galdu genuen beraien aurka, Bilbon. Hori talde bat, eta bestea akaso Errenteriako Ereintza, talde gaztea delako. Pasa den denboraldian ere justu-justu libratu zen.

Nora izan behar dituzue irteerak? Urruti?

Gasteiz, Urduliz, Bilbo... Talde gehienak Bizkaikoak dira. EAE-tik ez gara aterako. Arabako talde bat dago, Corazonistas Gasteizkoa. Eta Gipuzkoakoak Ereintza, Hondarribia, Zarautz, Aloña Mendi eta Arrasate. Ezjakintasun puntu bat ere badaukagu, taldeen gaitasunari dagokionez.

Noiz espero duzu taldearekin entrenatzen hastea?

Ez dakit oraindik. Hilabetetxo bat beharko dut. Lan fisikoa bai, egin dezaket, baina baloia ukitzeko oraindik aste batzuk beharko ditut.

"ESKUBALOIA URREZKO AROA EZAGUTZEN ARI DA URNIETAN"

GORKA VICENTE



Leizaran eta Urnieta eskubaloia taldeen aurkezpen ekitaldiak

ESKUBALOIA Joan zen ostiralean Leizaran KKE klubak eskubaloia talde guztien aurkezpen ekitaldia egin zuen. Argazkia ikusita, talde asko osatzea lortu dute. Denboraldi berria berezia izango da, abian jarri zeneko 40 urte betetzen baitira.

Urnieta KE taldeak ostiral honetan egingo du denboraldiko aurkezpena, 19:00tan kiroldegian hasiko den ekitaldian. Eskubaloia eskolarekin eta federatu mailako 9 taldeekin abiatuko dute 2019-2020. denboraldia. Senior mailako nesken itzulera, albiste pozgarria.



AZKEN BERBA

ANDONI URBISTONDO
URNIETA

Vuelta amaitu eta gerokoak

- Espainiako Vueltak emandakoa nota banaketa berezi batean laburbiltzeko ahalegina da, ondorengo.
- 10** Mikel Iturria. Orain arteko bere garaipen handiena, eta akaso bere kirol ibilbideko garrantzitsuenak. Fedea irabaziko du, bere gaitasunean, eta pisua, etorkizunean.
- 9** Tadej Pogacar: Hiru etapa eta podiuma, 20 urterekin. Eta mutil ausarta! Belaunaldi berri ikusgarria izanen dugu 2020an: Bernal, Van Aert, Van der Poel...
- 8** Primoz Roglic: Lehen itzuli handia poltsikoan du, batere arrakalarik gabe. Ez du mendian huts egin, eta erlojupekoan aurkariak txikitu ditu. Fidagarria
- 7** Deceuninq taldea. 5 etapa, denera: Jakobsenek 2, Gilbertek beste 2, eta Cavagnak bestea. Munduko talde onena.
- 6** Alex Aranburu. Etaparik lortu gabe ere, sekulako maila eman du Ezkiokoak. Astana taldearekin korrituko du 2020an
- 5** Alejandro Valverde: Podiuma, 39 urterekin. Babak eltzetik ateratzen bere taldeari, beste behin.
- 4** Miguel Angel Lopez. Beti badu zerbait. Erorketaren bat, ezina... Aukera asko ari zaizkio ihes egiten, eta bere nagusiek ez diote betiereko konfiantzari eutsiko.
- 3** Nairo Quintana: Urrutiko intxaurrak hamalau, hurbildu eta lau... Bukaeraraino babestu du Movistarrek. Gehiegizkoa.
- 2** Iraila. Tropela nekeak jota iristen da Vueltara, eta mendi mordoak jarrita ere, probak Giroa baino distira askoz apalagoa du.
- 1** Ibilbidea: Erlojuoekoa garaizegi, eta horrek Roglic, eta bere taldeari, lasterketa erabat kateatzen lagundu die.
- 0** Movistar taldearen maniobra Roglic liderra erori zenean. Lotsagarria.

Iturria omenduko dute Urnietan eta Andoainen

TXIRRINDULARITZA Espainiako Vueltan lortutako garaipen ikusgarriaren ondoren, asteburuan bi herrietako txirrinduzaleen txaloak jasoko ditu. Ostiralean Urnietako lagunek eta txirrinduzaleek omenduko dute, eta larunbatean Andoaingoek



Astearte iluntzean lagunek omenalditxo eskaini zioten, San Juan plazan. ITURRIARENLAGUNAK

Erredakzioa ANDOAIN

Ospeak protagonistaren zereginak biderkatu ohi ditu. Espainiako Vuelta amaitu bada ere, Mikel Iturriak atsedean hartzeko nahikoa tarterik ez du izan. Hedabideei elkarrizketak eskaini, proposamen ezberdinei arreta jarri..., aspertzeko tarterik ez dute izan Iturriak eta bere inguruak. Horixe da ospearen zama. Astearte iluntzean Iturriaren koadrilakoek lehen omenalditxo eskaini zioten, San Juan plazan.

Agurra dantzatu zioten, txapela jantzi eta bertso batekin amaitu zen ospakizuna. Ez da jasoko duen emanaldi bakarra izango, emozioz beteriko asteburua dator kio urnietarrari

Omenaldia Urnietan, ostiralean arratsaldeko 18:00tan hasita

Herri omenaldia egingo diote ostiral honetan, arratsaldeko 18:00tan San Juan plazan. Talde ezberdinek bat egingo dute Iturriari gorazarre egiteko.

Andoainen bigarren omenaldia, 12:00tan Zumea plazan

Udalak antolatutako "Mugitu Andoain" ekimenaren baitan, haur eta gazteek Iturriarekin batera bizikletan ibiltzeko aukera izango dute. Goikoplazatik Trentxiki aldera abiatuko dira, goizeko 10:00tan. 12:00ak aldera Zumea plazara iritsiko dira. Azken zatian Mikel Iturria batuko zaie. Plazan bertan, Txirrindulari eskolak eta Udalak omenduko dute.

Garaipena lehen partidan

Euskaldunak eta Urolak Gipuzkoako ligarik garrantzitsuenan debuta egin zuten, biek ere maiatzean igoera eskuratu baitzuten. Jokalarien artean sekreturik ez, beraz, aski ezagunak baitziren. Ubitarten jokatu zen denboraldiko lehen partidan, garaipena etxekoentzat izan zen. Hasiera ona andoaindarrentzat. Ligan exigentzia handia egongo baita.



JESUS MARI ERAUSKIN

KARTELDEGIA

FUTBOLA

BURUNTZALDEA TXAPELKETA

IV. Buruntzaldeko Emakumezkoen Futbol txapelketa izango da Ubitarteko zelaian. Urnieta, Usurbil, Debako Hamaika Bat eta Euskalduna taldeek torneo antzekoa jokatu dute goiz osoan, eta 12:30etik aurrera 3. eta 4. postuak eta finala erabakiko dira.

3-4. POSTUAK ETA FINALA

12:30 Ubitarte / Lar, 21

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Euskalduna-Urola 2-1

NESKAK, 0. ERREGIONALA

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:00 Urnieta-Hernani / Ig, 22

ERREGIONAL PREFERENTE

Urnieta-Axular 0-1

1ª ERREGIONAL MAILA

Urola-Euskalduna 1-2

ASTEBURUKO PARTIDAK

19:30 Euskalduna-Lazkao / lar, 21

PREFERENTE NESKAK

Euskalduna-Oiartzun 2-2

ASTEBURUKO PARTIDAK

15:30 Euskalduna-Lizeoa / lar, 21

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA

Pasaia-Euskalduna 3-4

ASTEBURUKO PARTIDAK

17:30 Euskalduna-Astigarra / lar, 21

JUBENIL MAILA, 1ª MAILA

Hernani-Euskalduna 4-1

Ordizia-Urnieta 1-3

ASTEBURUKO PARTIDAK

16:00 Urnieta-Ostadar B / Lar, 21

11:30 Euskalduna-Danena B / Ig, 22

KADETE, A MAILA

Astigarra-Euskalduna 0-9

Urnieta "A"-Hernani 2-3

ASTEBURUKO PARTIDAK

09:30 Euskalduna-Herrera D / lar, 21

KADETE, B MAILA

Euskalduna-Usurbil FT 0-2

Santo Tomas Lizeoa-Urnieta B 7-3

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00 Urnieta B-Luberri / Lar, 21

KADETE NESKAK

Euskalduna-Intxurre 3-4

ASTEBURUKO PARTIDAK

12:00 Urnieta-Euskalduna / Ig, 22

ESKUBALOIA

TALDEEN AURKEZPENA

Urnieta KE taldeen aurkezpen ekitaldia.

19:00 Urnietako kiroldegia / Ost, 20

EUSKADI, SENIOR MUTILAK

LEHEN JARDUNALDIA

12:00 Urdaneta-Urnieta / Ig, 22

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK

LEHEN JARDUNALDIA

- Leizaran / Atsedean

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Gorka Diez Rezola
Irailaren 24ean 22 urte.
Mantendu zure irribarra eta zorientasuna!!!
Etkekoak.



URNIETA Jokin Zorionak
Irailaren 19an 19an zazpi urte!!!
Ondo pasa eguna etxeko guztiekin.
Muxuak.



ANDOAIN Xabat, Galder eta Irene Ormaetxea
Irailaren 30ean Xabatek eta Galderrek 6 urte beteko dituzte, eta urriaren 13an Irenek 10 urte. Egun polita izan etxekoan partez eta muxu handi bana!!!



ANDOAIN Aratz Korta Martinez
Irailaren 27an bi urte beteko dituzu!
Muxu potoloak etxekoan partetik!

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 21 eta igandea 22
ZATARAIN: Elizondo, 6.
943 59 08 02 Andoain.

URNIETA

Larunbata 21 eta igandea 22
ETXEBESTE: Elkano, 9. Behea.
943 55 20 87 Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 19

URNIETA Matrikulazioa

Guraso eskolan izena emateko epea zabalik. 0-16 urte bitarteko haur eta nerabeen gurasoentzat aproposa.
Informazioa: Urnieta.eus.

OSTIRALA 20

URNIETA Parte hartzea

Paisaia plana berritzeko parte hartze prozesua deitu dute. Parte hartzeko epea irailaren 20an amaitzen da.
Informazioa: Bertan.

URNIETA Sanmielen atarikoak

Sanmielen atarikoak eta Sanmielak, erdiko orrialdeetako gehigarrian.
Gehigarri berezia.

ANDOAIN 2. eskuko azoka

Irailaren 28an ospatuko da Zumea plazan, goiz osoan zehar. Informazioa: 686 427 565
Izena emateko azken eguna.

URNIETA Matrikulazioa

Kultur ikastaroetan lehen aldiz izena eman behar dutenentzat azken aukera.
Informazioa: Bastero.

LARUNBATA 21

ANDOAIN Ikastaroa

GPS aplikazioen ikastaroa.
10:00, Leitzaran bisitarien etxea.

ANDOAIN Kalegiroan

"Emportats" zirkua emanaldia.
19:00, Goikoplaza.



Pottors ta Klito musika taldea. MUSIKAZUZENEAN

ANDOAIN Salda badago jardunaldien aurkezpen festa

Azaroaren 1etik 3ra Euskal Herriko jardunaldi feministak antolatu dituzte, Durangon. Aurkezpen jaialdietakoa Andoainen da.
18:30 Jardunaldien aurkezpena Juanita Alkain plazan, Goiatz Salvadorren musikarekin.
19:00 Katilu poteoa kalez kale.
20:30 Performancea Zumea plazan. Afaria Gaztetxean. Bakoitzak berea eramanda.
22:30 Kontzertuak Gaztetxean: Optika eta Pottors ta Klito.
Irailak 21, larunbata.

IGANDEA 22

URNIETA Igerilekua

Udal igerilekua zabalik izango da.
Azken eguna. Ohiko ordutegia.

ANDOAIN Musika

"Leitzaran omenduz", Unanibiari eskainitako ereserkiaren aurkezpena egiteko. Berrondoren ereserkiari Oiarzabalek musika ipini dio. Euriarekin, San Estebango baselizan.
12:30, Unanibia.

ASTELEHENA 23

URNIETA Hitzaldia


Pou anaien eskutik.
19:00, Sarobe.

ASTEAZKENA 25

URNIETA Sarobeko ikastaroak

Ikastaroetan izena emandako ikasleen zerrendak argitaratuko dituzte.
Ikasturtearen hasiera: Urriak 1.

ZINEMA



ANDOAIN

ZINEMA

Quien a hierro mata

Larunbata, 21:
19:30, 22:00.
Igandea, 22:
19:30.


Astelehena, 23:
19:30, 22:00.

Elkano lehen mundu bira

Lar, 21: 17:00.
Ig, 22: 17:00.

Agur Etxebeste!

Irailak 27tik 30era.



SINOPSISIA



Quien a hierro mata

Zuz.: Paco Plaza. **Gidoia:** Juan Galiñanes, Jorge Gerrikaetxerria. **Herr.:** Espainia (2019). **Generoa:** Thrillerra. **Aktoreak:** Luis Tosar, Xoan Cejudo, Enric Auquer, Maria Wazquez... **Iraupena:** 107 minutu.

Intentsitate handiko thrillerra

Galiza aldeko kostako herrialde batean Mario (Luis Tosar) erizaina bizi da. Gizon ona, zaharren egoitzan lan bikaina egiten ari da. Erabateko aldaketa izango du Antonio Padin narco ezaguna gartzelatik Marioren egoitzara ekartzen dutenean. Harekin eta bereziki Kike eta Toño bere bi

semeekin gatazka handia biziko du. Filmaren estreinaldia da, eta lehen asteetan alde bateko eta besteko kritikak eragin ditu. Oro har, kritika onak gailentzen dira. Filmaren bermeetakoa ez da bakarrik Tosar aktorea, baita Jorge Gerrikaetxerria gidoilaria ere.

"Mugi Andoain!", larunbatean

Euskalduna Mendigoizale taldea, Andoaingo Txirridulari Eskola, Irist-Irri eta Ibili Andoain talde eragileekin elkarlanean hitzordu sorta antolatu du Andoaingo Udalak. ekitaldiak aurkezteko agerraldian adierazi zuten, "familia giroan eta erritmo lasaian" egiteko jarduerak dira.

Irailak 21, larunbata, Goikoplaza

10:00 "Denak bizikletan!",
Trentxiki aldera abiatzeko.

10:00 Mendi irteera.

10:30 Ipar martxa, ikastaroa gehi ibilbidea.

10:45 Ibili Andoain, 65 urtetik gorakoentzat.

Zumea plaza

11:00 Disfrutatu patinetan.

11:30 Goazen korrika.

12:00 Aitortza ekitaldia Mikel Iturriari eta Nahikari Garciari. Iturria Andoaingo Txirridulari Eskolan aritutakoa da eta Nahikari Garcia urnietarra Andoainen bizi da.

Euskalduna Mendigoizale elkarteak pintxoak eskainiko dizkie jarduera ezberdinetan parte hartu dutenei.



Asteleheneko elkarretaratzean Ekain Zubizarretak parte hartu zuen. AIURRI

Espetxea saihestuko dute eskualdeko auziperatuek

11/13 sumarioko Kudu eta Esnal urnietarrak eta Zubizarreta andoaindarra etxera itzuli ziren, egunean bertan

Erredakzioa ANDOAIN

Asteburu luzea eta ezjakintasunez beterikoa izan da 11/13 sumarioko berrogeita zazpi auziperatuentzat. Babes zabala jaso zuten Bilbon, larunbatean deitutako nazio mailako manifestazioan. Igandean etxekoen eta lagunengandago jaso eta gero, auziperatuak Madrilera abiatu ziren. Ezjakintasuna azkar batean argitu zen, fiskaltza eta akusazioaren arteko akordioak epaiketa bertan behera uztea ahalbidetu baitzuen. "Auzitegi Nazionala ez da ohiko epaitegi bat, eta horrek ahalbidetu baitu gure aurkako zigor eskaerak izugarriak izatea. Zigor horiek egia bilakatu zitezkeela pentsarazi digu", Amaia Izko bozeramailearen adierazpenak izan ziren. Hori dela eta, akordioa lortzea erabaki zuten. Gehientzat zigor txikiak izango dira, eta espetxea saihestu ahal izango

dute. Enparantza eta Zulueta abokatuak izango dira hilabeteetako gartzela zigorra jasoko duten bakarrak.

Zubizarretari harrera Andoainen

Lehendik deituta zegoen batzar informatiboa, minutu batzuk beranduago hasi zena. Bertan zirenak Ekain Zubizarreta iristeko zain zirelako. Bastero plazara hurbildu orduko txalo zaparrada jaso zuen. Hunkituta zegoen Ekainen familia. Ekainek hitza hartu zuen, jasotako babesa eskertzeko. Lortutako akordioaren arrazoiak eman zituen, adierazpen berean: "Iraganean nahaspilatu nahi gaituzten estrategien aurrean, guk etorkizunera begiratu nahi izan dugu, eta norabide horretan 45 herritarrek espetxea ez zapaltzea lehenetsi dugu. Espetxeak hustu behar ditugu, ez bete". Txalo artean amaitu zen batzarra.

Merkataritza sustatzeko ekimen sorta, Andoainen

Beterriko merkataritzaren egoera kezagarriaz ohartuta, bertako udalek eta merkataritza eta ostalarien elkarteek elkarlanean herritarrei begirako sentsibilizazio kanpaina abian jarri dute. Andoainen outlet kalean ekimena antolatu dute, ostiral honetan



Merkataritzaren aldeko ekimena Astigarragan aurkeztu zuten. AIURRI

Xabier Lasa ASTIGARRAGA

Beterriko bost udalerrietako (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria eta Usurbil) udalek eta elkarteek bat egin dute urte bat gehiago, eta irailaren 20an merkataritza festa antolatu dute, tokiko merkataritza sustatu asmoz.

Xabier Urdangarin Astigarragako alkateak hedabideen aurreko agerraldian adierazi zuenez, "denok garbi daukagu merkataritza txikiak herriarrei produktuak eskaintzeaz gain herriari bizitza ematen diotela. Egun bateko ekimenarekin ez ditugu aldatu-

ko erosteko ohiturak, baina pozgarria da hainbeste elkarte eta udal elkarrekin ikustea. Erronka ez da txikia, baina holako ekimenak baliagarriak izan daitezke herritarrek gogoeta txikia egin dezaten ea nolako herria nahi dugun eraiki".

Andoaindik ordezkariitza zabala hurbildu zen Astigarragara: Mari Jose Izagirre Alkateordea, Manu Segovia Udaleko Turismo eta Merkataritza sailako teknikaria, Maite Ramos Salkin elkarteko lehendakaria eta Sandra Viera Salkin elkarteko teknikaria.

Egunotan Salkineko dendetan bezeroaren astea ospatzen ari dira. Erosketa egiterakoan 2, 3 eta 5 euroko sariak lor daitezke.

"Nire aukera Andoain!"

Ostiralerako herriko dendariak *Outlet*a antolatu dute. Hainbat produktu, beraz, prezio berezian erosteko aukera izango da. Era berean, hainbat tabernetan pintxo potea antolatu dute. Baita musika zuzenean ere:

19:30-21:30 Malkogarriyak Gokoplazan.

19:30-22:30 DJ Nemux Zumea plazan.

Alzheimerrarekin kontzientzia hartzeko hitzorduak

Andoainen "Arrugas" filma eskaini dute berriki, eta datorren irailaren 24rako hitzaldia eskainiko dute

Erredakzioa ANDOAIN

Irailaren 21ean, larunbatarekin, Alzheimerraren munduko eguna ospatuko da. Munduan berrera hainbat pertsoneri eragiten dien gaitzari dagokionez, Andoaingo Gizarte Zerbitzuetatik

"Zaintzen bazara, Alzheimerrak atzera pauso bat egiten du" izenburupean ekitaldi sorta antolatu dute. Irailaren 24an, asteartearekin, Pablo Martinez-Lage neurologoak hitzaldia eskainiko du Basteron. 18:00etan hasiko

da, eta hitzaldiak honako izenburua darama: "Diagnosi goiztiarra posible da, prebentzioa da erronka". Ekitaldiaren amaieran, bertaratutakoek Alberto Agirre abesbatzaren emanaldiekin gozatu ahal izango dute.

Ekitaldien aurkezpena Maider Lainez alkateak, Mari Jose Izagirre zinegotziak, Maite Iruretagoiena eta Nemesio Zatarain Bertxin elkarteko kideek eta Eloi Artolazabal Santa Krutz elkarteko ordezkariak egin zuten.



Jardunaldiak iragartzeko aurkezpen ekitaldia, udaletxean. AIURRI